

Erref. kodea: LAF-218-190 [3]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Allande Södürlüze, herriko mera: *Herri
mutilaren krida*

HERRI MUTILAREN KRIDA

Popülü jauna perbenitia da daigün astezkenian agitüko den libertimendü ederraz Napoleon inperadore hirugerrenak berak jakin-erazten dereie Frantses güzier, bena partikulazki Amikuzeko jente huner, Arbotiko herri handi famatian izanen dela hausterri, xaz bezala, arto batalla jostagarri bat.

erresunako
Ibil daizken presunak oro gomitaturik dáira besta hortan parte hartzerat, izan ditzen xuri ala gorri, xotil ala xainkü, ezkel ala lauso, iletsu ala karsoil. Bena josteta horik behar bezala pasa ditzen, Arbotiko jaun mera kargatürik da erregelamentü munizipal baten püblikatzera.

Huna beraz delako erregelamentia:

Ni Allande Södürlüze, Arbotiko lehen kargüdüna nizan bezala, Pettan Södürmako ene axuantaren lagüngoarekin deliberatü dut

Lehen artikülia. - Amikuzen bizi diren lau hogei-ta-hamar urtez peko presuna güziak bil ditela Arbotirat, hausterri aratsian, arto, ilar ala baba bihiz ausarki zuñkitürik.

Bigarren artikülia. - Berrogoi-ta-bost urtez peko anderek, bihi kolper ihardokitzeko, beren buruak estal ditzatela mantalin oihal azkarrez.

Hirugarren artikülia. - Gain-gainetik debekatzen dugu, arto-bihi eta baba zaharrek kin batian urrezko luisik edo berdin hamar liberakorik botatzia.

Laugarren artikülia. - Halaber ez da haizu izanen neskatxunen lepoan beheiti bihien lerraraztia, ez ditzen bortxatiak izan justaren botoinen largatzera.

Bosgarren artikülia. - Nor ere kexatuko baita, hari hamar ahurtara bihi botako zaizko bester baino haboro.

Arbotin orokundez egina eta zigilatia, ontsa afal-eta, hemezortzi ehun eta hirurogoi-ta-lauan.

Allande Södürlüze, herriko mera.



